

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### EKONOMIA SUSTAPENEN ETA PROIEKTU ESTRATEGIKOETAKO DEPARTAMENTUA

«Pertsonen Enpresa» dirulaguntza programaren oinarri espezifikoen aldaketa eta 2026ko deialdia.

Diputatuen Kontseiluak honako erabaki hau hartu du 2026ko maiatzaren 26ko bilkuran:

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak, 2024-2027 aldirako Plan Estrategikoarekin bat etorri, garapen-estrategia bat bultzatzen du, enpresen lehiakortasuna indartzeko, kalitatezko enplegua sustatzeko eta lurraldean jasangarritasuna bermatzeko. Esparru horretan, Pertsonen Enpresa dirulaguntzen programa jarri zen abian 2025eko martxoan, eta funtsezko tresna bihurtu zen pertsonen enpresetan duten inplikazioa indartzeko, belaunaldien arteko erreleboaren bidez enpresen jarraipena babesteko, enpresa-kultura inklusiboa eta jasangarria sustatzeko eta langileen ongizatea hobetzeko, desberdintasunak murrizten eta genero-berdintasuna eta enpleguaren kalitatea sustatzen lagunduz.

2024-2027 Planaren helburu estrategikoetako bat enpleguaren kalitatea sustatuko duen ekonomia bat bultzatzea da, enpresen erronkekin bat datorrena eta pertsonen beharrei erantzuneko diena. Ildo horretan, Pertsonen Enpresa programak helburu horri erantzuten dio, langileek enpresen kudeaketan eta kapitalean parte-hartze aktiboa izatei sustatuz, erabakiak hartzen parte hartzea sustatuko duten antolamendu-ereduak garatuz eta barne-kohesioa eta enpresen jasangarritasuna sendotzeko neurriak hartuz. Era berean, jardun-ildo horrek desberdintasunak murrizten eta aukerak sortzen laguntzen du suspertzen ari diren sektoreetan, lan-merkatuaren eraldaketan aurrera eginez eta lan-baldintza ekitatiboagoak eta iraunkoragoak bermatuz.

Testuinguru horretan, Pertsonen Enpresa programa elkarri lotutako hiru laguntza-ildoren inguruan egituratzen da:

#### 1. *Pertsonengan oinarritutako enpresa-kultura sendotzea.*

Pertsonen ongizatea lan-ingurunean eta pertsonen enpresan duten inplikazioa funtsezko alderdiak dira produkzio-sarearen lehiakortasunerako eta jasangarritasunerako. Laguntza-lerro honen ardatza da pertsonak erdigunean jarriko dituen enpresa-kultura bat bultzatzea, lan-giro positiboa, motibazioa eta garapen profesionala sustatuz. Enpresei lagunduko zaie lan-giroaren kalitatea hobetzen, bizitza pertsonalaren eta profesionalaren arteko kontziliazioa eta oreka sustatzen eta berdintasun- eta aniztasun-politikak garatzen lagunduko duten neurriak ezartzen.

#### 2. *Pertsonen enpresetan parte har dezaten sustatzea.*

Enpresa-eredu parte-hartzaileago eta jasangarriago bat garatzeko, langileen inplikazioa indartu behar da erabaki estrategikoak hartzeko orduan, kudeaketan eta emaitza ekonomikoetan. Lagun-

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

### DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA Y PROYECTOS ESTRATÉGICOS

Modificación de bases específicas y convocatoria 2026 del programa de subvenciones «Pertsonen Enpresa».

El Consejo de Gobierno Foral ha adoptado el siguiente acuerdo en su reunión de 26 de mayo de 2026:

El Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en coherencia con el Plan Estratégico 2024-2027, impulsa una estrategia de desarrollo orientada a reforzar la competitividad empresarial, fomentar el empleo de calidad y garantizar la sostenibilidad en el territorio. En este marco se puso en marcha en marzo de 2025 el programa de subvenciones Pertsonen Enpresa, configurándose como una herramienta clave para fortalecer la implicación de las personas en las empresas, apoyar su continuidad mediante el relevo generacional, promover una cultura empresarial inclusiva y sostenible, y mejorar el bienestar de las personas trabajadoras, contribuyendo a la reducción de desigualdades y al fomento de la igualdad de género y la calidad del empleo.

Uno de los objetivos estratégicos del Plan 2024-2027 es impulsar una economía que fomente la calidad del empleo, alineada con los retos de las empresas y que responda a las necesidades de las personas. En este sentido, el programa Pertsonen Enpresa responde a esta meta mediante el fomento de la participación activa de los trabajadores en la gestión y capital de las empresas, el desarrollo de modelos organizativos que promuevan su implicación en la toma de decisiones y la adopción de medidas para consolidar la cohesión interna y la sostenibilidad empresarial. Asimismo, esta línea de actuación contribuye a la reducción de desigualdades y a la generación de oportunidades en sectores emergentes, avanzando en la transformación del mercado laboral y garantizando condiciones de trabajo más equitativas y sostenibles.

En este contexto, el programa Pertsonen Enpresa se articula en torno a tres líneas de ayuda interrelacionadas:

#### 1. *Consolidación de una cultura empresarial centrada en las personas.*

El bienestar de las personas en el entorno laboral y su implicación en la empresa son aspectos fundamentales para la competitividad y sostenibilidad del tejido productivo. Esta línea de ayuda se centra en impulsar una cultura empresarial que ponga a las personas en el centro, promoviendo un ambiente de trabajo positivo, la motivación y el desarrollo profesional. Se apoyará a las empresas en la implementación de medidas que contribuyan a mejorar la calidad del ambiente laboral, fomentar la conciliación y el equilibrio entre la vida personal y profesional, así como a desarrollar políticas de igualdad y diversidad.

#### 2. *Fomento de la participación de las personas en las empresas.*

El desarrollo de un modelo de empresa más participativo y sostenible pasa por reforzar la implicación de los trabajadores en la toma de decisiones estratégicas, la gestión y los resultados

tza-ildo horren bidez, gobernantza-egitura inklusiboagoak sustatu nahi dira, eta enpresen lehiakortasuna hobetu, kudeaketan erantzukidetasun handiagoa lortuta. Parte hartzeko pizgarriak sustatzeak eta langileak enpresen kapital-egituran integratuko dituzten ereduak hartzeak barne-kohesioa eta produkzio-sarearen jasangarritasuna indartzea ahalbidetuko du.

### 3. Enpresa-jarraipenari laguntzea, belaunaldi-erreleboaren eta ondorengotzaren bidez.

Enpresa-sarearen egonkortasuna funtsezkoa da lurraldearen jasangarritasun ekonomikoa bermatzeko. Laguntza-lerro honen helburua da belaunaldi-erreleboko eta enpresetako ondorengotzako prozesuak erraztea, trantsizioari lotutako arriskuak minimizatuko dituzten eta jarduerak denboran iraungo duela bermatuko duten estrategiak sustatuz. Ondo egituraturako ondorengotzaplana ezarri eta lidergo berriak gaituz, enplegua zaindu, enpresen sustraitzea bermatu eta kudeaketa-eredu eraginkor eta jasangarriak finkatu ahal izango dira.

Horregatik, orain arte garatutako dinamikaren balorazio positiboa ikusita, egokitzat jotzen da apustu estrategiko horrekin jarraitzea.

Era berean, deialdi honetan, Departamentuak sustatzen dituen laguntza-ildoen koherentzia eta antolamendua bermatzeko arrazoiengatik, onuradun izaera enpresei soilik aitortzen zaie. Ondorioz, ez dira onuraduntzat hartuko gainerako entitate motak.

2026ko deialdian, Diputatuen Kontseiluak 2025eko martxoaren 4an onetsitako oinarri arautzaileak aplikatuko dira, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN 2025eko martxoaren 25ean argitaratuak, 57. zenbakian. Hala ere, II. eranskineko oinarri espezifikoan 2. oinarriaren aldaketa bat planteatzen da, «Pertsonengan oinarritutako enpresa-kultura sustatzeko laguntzak» dirulaguntzaren erakunde onuradunei buruzkoa, bai eta IV. eranskineko oinarri espezifikoan 2. oinarriaren aldaketa bat ere, «Enpresaren jarraipena babesteko laguntzak, belaunaldi-erreleboaren eta ondorengotzaren bidez» dirulaguntzen lerroaren erakunde onuradunei buruzkoa.

Dirulaguntza lerro hau 2024-2027 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan (DLPE) sartuta dago.

Horiek horrela, Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuko foru diputatuak proposatuta, eta eztabaidatu ondoren, Diputatuen Kontseiluak

#### ERABAKITZEN DU

**Lehenengo.** Diputatuen Kontseiluaren 2025eko martxoaren 4ko erabakiaren II. eranskineko oinarri espezifikoan 2. oinarriaren aldaketa onestea, «Pertsonengan oinarritutako enpresa-kultura sustatzeko laguntzak» dirulaguntzen lerroaren erakunde onuradunei buruzkoa, eta, era berean, aipatu erabakiaren IV. eranskineko oinarri espezifikoan 2. oinarriaren aldaketa onestea, «Enpresaren jarraipena babesteko laguntzak, belaunaldi-erreleboaren eta ondorengotzaren bidez» dirulaguntzen lerroaren erakunde onuradunei buruzkoa, I. eranskinen agertzen den bezala.

**Bigarren.** Pertsonen Enpresa programa izeneko dirulaguntzen 2026ko deialdia onestea, erabaki honen II. eranskinen jasota dagoena.

**Hirugarren.** Baimentzea 2.900.000,00 euroko gastua, deialdi hau gauzatzeko. Zenbateko hori Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2026ko Aurrekontu Orokorretako honako jarduketa-ildo eta kontu sail hauen artean banatuko da:

– Pertsonengan oinarritutako enpresa-kultura bultzatzeko lerroko proiektuak eta jarduerak finantzatzeko (II. eranskina), 1.500.000,00 euro:

1.0510.100.470.00.27 2026: 1.000.000,00 euro.

5.0510.100.470.00.27 2027: 500.000,00 euro.

económicos. A través de esta línea de ayuda, se pretende fomentar estructuras de gobernanza más inclusivas y mejorar la competitividad empresarial mediante una mayor corresponsabilidad en la gestión. La promoción de incentivos a la participación y la adopción de modelos que integren a los trabajadores en la estructura de capital de las empresas permitirá reforzar la cohesión interna y la sostenibilidad del tejido productivo.

### 3. Apoyo a la continuidad empresarial a través del relevo generacional y la sucesión.

La estabilidad del tejido empresarial es un factor clave para garantizar la sostenibilidad económica del territorio. Esta línea de ayuda está dirigida a facilitar los procesos de relevo generacional y sucesión en empresas, promoviendo estrategias que minimicen los riesgos asociados a la transición y aseguren la permanencia de la actividad en el tiempo. La implementación de planes de sucesión bien estructurados, así como la capacitación de nuevos liderazgos, permitirá preservar el empleo, garantizar el arraigo empresarial y consolidar modelos de gestión eficientes y sostenibles.

A la vista de la valoración positiva de la dinámica desarrollada hasta el momento, se considera oportuno continuar con esta apuesta estratégica.

Asimismo, en la presente convocatoria se establece, por razones de coherencia y ordenación de las distintas líneas de apoyo impulsadas por este Departamento, que únicamente tendrán la condición de entidades beneficiarias las empresas. En consecuencia, no serán consideradas entidades beneficiarias las restantes tipologías de entidades.

En la convocatoria de 2026 serán de aplicación las bases reguladoras aprobadas por el Consejo de Gobierno Foral el 4 de marzo de 2025, publicadas en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 57, el 25 de marzo de 2025. No obstante, se plantea una modificación de la base 2.ª de las bases específicas del anexo II al citado acuerdo, relativa a las entidades beneficiarias de la línea de subvención «Ayudas al impulso de una cultura empresarial centrada en las personas», y una modificación de la base 2.ª de las bases específicas del anexo IV, relativa a las entidades beneficiarias de la línea de subvención «Ayudas para apoyar la continuidad de la empresa a través del relevo generacional y la sucesión».

La presente línea de subvención se encuentra recogida en el Plan Estratégico de Subvenciones 2024-2027 (PES).

En su virtud, a propuesta del diputado foral del Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos, y previa deliberación, el Consejo de Gobierno Foral

#### ACUERDA

**Primero.** Aprobar la modificación de la base 2.ª de las bases específicas del anexo II al acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 4 de marzo de 2025, relativa a las entidades beneficiarias de la línea de subvención «Ayudas al impulso de una cultura empresarial centrada en las personas», y la modificación de la base 2.ª de las bases específicas del anexo IV al citado acuerdo, relativa a las entidades beneficiarias de la línea de subvención «Ayudas para apoyar la continuidad de la empresa a través del relevo generacional y la sucesión», como figura en el anexo I.

**Segundo.** Aprobar la convocatoria de las subvenciones del programa Pertsonen Enpresa correspondiente al ejercicio 2026, que se acompaña como anexo II al presente acuerdo.

**Tercero.** Autorizar un gasto por importe de 2.900.000,00 euros para hacer frente a esta convocatoria, distribuido entre los siguientes ámbitos de actuación y partidas de los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa 2026:

– Para la financiación de proyectos y actuaciones de la línea para impulsar una cultura empresarial centrada en las personas (anexo II), 1.500.000,00 euros:

1.0510.100.470.00.27 2026: 1.000.000,00 euros.

5.0510.100.470.00.27 2027: 500.000,00 euros.

– Pertsonen enpresetan parte hartzea sustatzeko lerroko proiektuak eta jarduerak finantzatzeko (III. eranskina), 700.000,00 euro:

1.0510.100.470.00.26 2026: 490.000,00 euro.

5.0510.100.470.00.26 2027: 210.000,00 euro.

– Belaunaldi-erleboaren eta ondorengotzaren bidez enpresaren jarraipena babesteko lerroaren proiektuak eta jarduerak finantzatzeko (IV. eranskina), 700.000,00 euro:

1.0510.100.470.00.25 2026: 490.000,00 euro.

5.0510.100.470.00.25 2027: 210.000,00 euro.

Aurkeztutako eskaerak ebatzi aurretik, aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena duen organoak baimendutako gastuaren zenbatekoa handitu ahal izango du, deialdi berri bat egin gabe. Kopuru gehigarria eraginkorra izateko baldintza izango da dirulaguntzak ematea ebatzi aurretik kreditua erabilgarri deklaratzeari.

*Laugarren.* Erabaki honen bidez onetsitako oinarri espezi-fikoen aldaketek Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen diren egunaren hurrengo egunetik aurrera izango dute eragina.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkez dezakete Donostiako Auzialdiko Auzitegiko Administrazioarekiko Auzien Atalean, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertze hautazko errekurtsioa aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzearen berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespina gertatu arte. Dena dela, egoki irizitako beste edozein errekurtsio aurkez daiteke.

Donostia, 2026ko maiatzaren 29a.—Departamentuko idazkari teknikoa. (3830)

#### I. ERANSKINA

*Pertsonen Enpresa programaren II. eranskineko 2. oinarri espezifiko eta IV. eranskineko 2. oinarri espezifiko aldatzeari. Oinarri horiek 2025eko martxoaren 4ko Foru Gobernu Kontseiluaren erabakiz onartu ziren (2025eko martxoaren 25eko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 57. zk.).*

Oinarri arautzaileen II. eranskineko oinarri espezifikoaren 2. oinarria eta IV. eranskineko oinarri espezifikoaren 2. oinarria aldatzen dira, eta honela idatzita geratzen dira:

II. eranskineko oinarri espezifikoaren 2. oinarria. Erakunde onuradunak.

2.1. Onuradunak, egoitza soziala eta fiskala Gipuzkoan duten enpresak izango dira.

2.2. Ez dira erakunde onuradun izango irabazi-asmorik ez duten pertsona juridikoak edo erakundeak, eta berariaz kanpoan geratuko dira Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko (ZTBES), Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren funts publikoekin finantzatutako unibertsitateaz kanpoko hezkuntza-sistemako ikastetxeen sareko erakundeak, irabazi-asmorik gabeko erakundeen elkarteak edota taldeak, haien forma juridikoa edo jarduera garatzen duten sektorea edozein delarik ere.

– Para la financiación de proyectos y actuaciones de la línea para fomentar la participación de las personas en las empresas (anexo III), 700.000,00 euros:

1.0510.100.470.00.26 2026: 490.000,00 euros.

5.0510.100.470.00.26 2027: 210.000,00 euros.

– Para la financiación de proyectos y actuaciones de la línea para apoyar la continuidad de la empresa a través del relevo generacional y la sucesión (anexo IV), 700.000,00 euros:

1.0510.100.470.00.25 2026: 490.000,00 euros.

5.0510.100.470.00.25 2027: 210.000,00 euros.

El importe del gasto autorizado podrá ser incrementado, con carácter previo a la resolución de las solicitudes presentadas, por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación, sin que ello dé lugar a una nueva convocatoria. La efectividad de la cuantía adicional queda condicionada a la declaración de disponibilidad del crédito en un momento anterior a la resolución de la concesión de las subvenciones.

*Cuarto.* La modificación de las bases específicas que se aprueba en virtud del presente acuerdo producirá efectos a partir del día siguiente al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él recurso contencioso-administrativo ante la Sección de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal de Instancia de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejo de Gobierno Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

San Sebastián, a 29 de mayo de 2026.—El secretario técnico del Departamento. (3830)

#### ANEXO I

*Modificación de la base específica 2.ª del anexo II y de la base específica 2.ª del anexo IV del programa Pertsonen Enpresa, aprobadas por acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 4 de marzo de 2025 (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 57 de 25 de marzo de 2025).*

Se modifican la base 2.ª de las bases específicas del anexo II y la base 2.ª de las bases específicas del anexo IV de las bases reguladoras, quedando redactadas de la siguiente manera:

Base 2.ª de las bases específicas del anexo II. Entidades beneficiarias.

2.1. Tendrán consideración de beneficiarias las empresas que tienen su domicilio social y fiscal en Gipuzkoa.

2.2. No tendrán la condición de entidades beneficiarias aquellas personas jurídicas o entidades que carezcan de ánimo de lucro, quedando expresamente excluidas las asociaciones, fundaciones, Entidades pertenecientes a la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación (RVCTI), Entidades de la red de centros docentes del sistema educativo no universitario financiados con fondos públicos del Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco, las asociaciones y/o agrupaciones de entidades y demás entidades sin fines lucrativos, con independencia de su forma jurídica o del sector en el que desarrollen su actividad.

IV. eranskinetako oinarri espezifikoaren 2. oinarria. Erakunde onuradunak.

2.1. Onuradunak, egoitza soziala eta fiskala Gipuzkoan duten enpresak izango dira.

2.2. Ez dira erakunde onuradun izango irabazi-asmorik ez duten pertsona juridikoak edo erakundeak, eta berariaz kanpoan geratuko dira Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko (ZTBES), Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren funts publikoekin finantzatutako unibertsitateaz kanpoko hezkuntza-sistemako ikastetxeen sareko erakundeak, irabazi-asmorik gabeko erakundeen elkarteak edota taldeak, haien forma juridikoa edo jarduerak garatzen duten sektorea edozein delarik ere.

## II. ERANSKINA

*Pertsonen Enpresa Programako laguntzen 2026ko deialdia.*

### 1. Xedea eta oinarri arautzaileak.

1.1. Pertsonen Enpresa programako dirulaguntzen 2026 urterako deialdia egitea.

1.2. «Pertsonen Enpresa» programako dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak Diputatuen Kontseiluaren 2025eko martxoaren 4ko erabakiaren bidez onartutakoak dira, eta 2025eko martxoaren 25eko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuak, 57. zenbakian. Oinarri arautzaile horiek aldatu egin dira deialdi honekin batera argitaratzen dira 2026ko maiatzaren 26ko erabakiaren bidez.

1.3. Deialdi honetako 2. eta 6. ataletan aipatzen diren eranskinak Diputatuen Kontseiluko 2025eko martxoaren 25eko erabakikoak dira, aurreko paragrafoan aipatutakoak.

### 2. Finantzaketa.

2.1. Guztira deialdi honetan emango diren laguntzen zenbatekoa 2.900.000 eurokoa da, ondorengo kontu sailen kargura:

a) Pertsonengan oinarritutako enpresa-kultura bultzatzeko lerroko proiektuak eta jarduerak finantzatzeko (II. eranskina), 1.500.000 €.

– 1.0510.100.470.00.27 2026: 1.000.000 €.

– 5.0510.100.470.00.27 2027: 500.000 €.

b) Pertsonen enpresetan parte hartzea sustatzeko lerroko proiektuak eta jarduerak finantzatzeko (III. eranskina), 700.000 €.

– 1.0510.100.470.00.26 2026: 490.000 €.

– 5.0510.100.470.00.26 2027: 210.000 €.

c) Belaunaldi-erlebotik eta ondorengotzatik enpresaren jarraipena babesteko lerroaren proiektuak eta jarduerak finantzatzeko (IV. eranskina), 700.000 €.

– 1.0510.100.470.00.25 2026: 490.000 €.

– 5.0510.100.470.00.25 2027: 210.000 €.

2.2. Baimendutako gastua handitu ahal izango du aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena esleituta duen organoak, dirulaguntza ematea ebatzi baino lehen. Dena den, horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko. Kopuru gehigarria eraginkorra izateko baldintza izango da dirulaguntzak ematea ebatzi aurretik kreditua erabilgarri deklaratzeko.

### 3. Entitate onuradunen baldintzak.

Onuradun izan daitezke oinarri arautzaile orokorren 2. oinarriaren eta, hala badagokio, laguntza-lerro bakoitzari dagozkion oinarri espezifikoaren 2. oinarriaren ezarritako baldintzak betetzen dituzten erakundeak.

Base 2.<sup>a</sup> de las bases específicas del anexo IV. Entidades beneficiarias.

2.1. Tendrán consideración de beneficiarias las empresas que tienen su domicilio social y fiscal en Gipuzkoa.

2.2. No tendrán la condición de entidades beneficiarias aquellas personas jurídicas o entidades que carezcan de ánimo de lucro, quedando expresamente excluidas las asociaciones, fundaciones, Entidades pertenecientes a la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación (RVCTI), Entidades de la red de centros docentes del sistema educativo no universitario financiados con fondos públicos del Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco, las asociaciones y/o agrupaciones de entidades y demás entidades sin fines lucrativos, con independencia de su forma jurídica o del sector en el que desarrollen su actividad.

## ANEXO II

*Convocatoria 2026 de las ayudas del Programa Personas Enpresa.*

### 1. Objeto y bases reguladoras.

1.1. Convocar para el año 2026 las subvenciones del programa Personas Enpresa.

1.2. Las bases reguladoras del otorgamiento de subvenciones del programa «Personas Enpresa» son las aprobadas por acuerdo del Consejo de Gobierno Foral del 4 de marzo de 2025, publicadas en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 57, el 25 de marzo de 2025. Dichas bases reguladoras han sido modificadas por acuerdo de 26 de mayo de 2026 que se publica junto con la presente convocatoria.

1.3. Los anexos a los que se hace referencia en los apartados 2 y 6 de la presente convocatoria, son los del acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 25 de marzo de 2025 señalado en el párrafo anterior.

### 2. Financiación.

2.1. La cuantía total de las subvenciones a conceder en esta convocatoria será de 2.900.000 euros con cargo a las siguientes partidas:

a) Para la financiación de proyectos y actuaciones de la línea para impulsar una cultura empresarial centrada en las personas (anexo II), 1.500.000 €.

– 1.0510.100.470.00.27 2026: 1.000.000 €.

– 5.0510.100.470.00.27 2027: 500.000 €.

b) Para la financiación de proyectos y actuaciones de la línea para fomentar la participación de las personas en las empresas (anexo III), 700.000 €.

– 1.0510.100.470.00.26 2026: 490.000 €.

– 5.0510.100.470.00.26 2027: 210.000 €.

c) Para la financiación de proyectos y actuaciones de la línea para apoyar la continuidad de la empresa desde el relevo generacional y la sucesión (anexo IV), 700.000 €.

– 1.0510.100.470.00.25 2026: 490.000 €.

– 5.0510.100.470.00.25 2027: 210.000 €.

2.2. El importe del gasto autorizado podrá ser incrementado, con carácter previo a la resolución de las solicitudes presentadas, por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación, sin que ello dé lugar a una nueva convocatoria. La efectividad de la cuantía adicional queda condicionada a la declaración de disponibilidad del crédito en un momento anterior a la resolución de la concesión de las subvenciones.

### 3. Requisitos de las entidades beneficiarias.

Podrán ser beneficiarias las entidades que cumplan los requisitos establecidos en la base 2.<sup>a</sup> de las bases reguladoras generales y, en su caso, en la base 2.<sup>a</sup> de las bases específicas correspondientes a cada línea de ayuda.

#### 4. *Eskaerak aurkezteko epea.*

Eskaerak aurkezteko epea deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da. Epe hori amaituko da 2026ko uztailaren 21ean, 13:00etan.

#### 5. *Jarduerak hasteko eta gauzatzeko epea.*

Diruz lagundutako jarduerak 2026ko ekainaren 1etik aurrera hasi eta 2027ko ekainaren 1a baino lehen bukatuko dira.

#### 6. *Eskaerarekin batera aurkeztu behar diren agiriak.*

a) Erantzukizun aitortpena, eranskinean edo bide telematikoz egindako eskaeran dagoen ereduari jarraituz, martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 12. artikuluan ezarritako onuradun izaera lortzeko ezein debekurik ez izatearena. Ez eta 1/2023 Legegintzako Dekretuaren, martxoaren 16koaren, Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabe Bizitzeko Lagearen testu batagina onartzen duenaren 23. artikuluan 2. zenbakiak eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 9ko 2/2015 Foru Arauak adierazietako debeku-kasuetako baten mende ez egotearena ere.

Deialdi honetan Gipuzkoako Foru Aldundiak honako betekizun hauek egiaztatuko ditu plataforma korporatiboen, bitartekaritza-plataformen (Nisae, Euskadiko administrazioen segurtasunerako eta elkarrengintasunerako nodoa) edo sarbide publikoko plataformen bidez:

– Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.

– Ogasunarekiko betebeharrak egunean izatea.

Pertsona edo erakunde eskatzaileak egiaztapen horren aurka egiten badu, berak aurkeztu beharko du dokumentazioa.

b) Halakorik izanez gero, eskatzaileak edozein administrazioi edo estatu zein nazioarte mailako entitate publiko nahiz pribatari eskatutako edo haiengandik eskuratutako dirulaguntzen, sarreren edo baliabideen adierazpena, estatutakoekin bateraezinak diren dirulaguntzak aipatuz. Eta, hala badagokio, aurreko hiru urteetan jasotako bestelako «minimis» dirulaguntzei buruzkoa.

c) Proiektuaren aurrekontu xehatua. Ez dira 300 eurotik beherako gastuak aurkeztuko.

d) Proiektuaren memoria, proiektuaren helburuak eta horiek lortzeko beharrezkoak diren faseen, jardueren edo zereginen deskribapena jasoko dituen. Memoriak planing bat izango du, eta bertan, hasiera eta amaiera datak jasoko dira. Proiektuan lan egingo duten pertsonak eta haien profila eta esperientzia zehaztuko dira, bai eta proiektua gauzatzeko behar diren baliabideak ere. Lankidetzaproiektuen kasuan, erakunde bakoitzak proiektu horretan duen zeregina azalduko da.

Gainera, II. eranskina baloratzeko, alde aurreko diagnostikoa badago, diagnostiko hori egin duen erakundeak sinatutako ziurtagiria erantsiko da.

Laguntza lerro bakoitzari dagokion eranskinaren 5. oinarrian ezarritako baloraziorako behar den informazio guztia emango da. Balorazioa eskabidean emandako informazioarekin egingo da.

e) Erakunde parte hartzailearen edo parte hartzaileen deskribapena. Lankidetzaproiektuen kasuan, labur-labur deskribatuko da enpresa parte-hartzaileen jarduerak, eta bertan lan egiten duten pertsonen kopurua eta dagozkion datu ekonomikoak jasoko dira. II. eranskinean proiektuak aurkezten dituzten erakunde kasuan, dagokion jardun eremuak enprekin edo enpresentzat egindako proiektuen xehetasunak aurkeztuko dira.

#### 4. *Plazo de presentación de solicitudes.*

El plazo para la presentación de las solicitudes se iniciará al día siguiente de la publicación de esta convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, y finalizará a las 13:00 horas del 21 de julio de 2026.

#### 5. *Plazo de inicio y ejecución de las actuaciones.*

Las actuaciones objeto de la subvención deberán iniciarse a partir del 1 de junio de 2026 y concluirán antes del 1 de junio de 2027.

#### 6. *Documentación que acompaña a la solicitud.*

a) Declaración responsable, conforme al modelo que se incluye en el anexo o en la solicitud telemática, de no hallarse incurso en cualesquiera de las prohibiciones para obtener la condición de entidad beneficiaria establecidas en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, ni de estar sometidas a ninguno de los supuestos de prohibición previstos en el art. 23, apartado 2.º del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia machista contra la Mujer y en la Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres.

Los requisitos que la Diputación Foral de Gipuzkoa verificará en esta convocatoria a través de plataformas corporativas, de intermediación (Nisae, nodo de interoperabilidad y seguridad de las administraciones de Euskadi) o de acceso público serán los siguientes:

– Estar al corriente de sus obligaciones frente a la Seguridad Social.

– Estar al corriente de sus obligaciones con Hacienda.

En el caso de que la persona o entidad solicitante se oponga a esta verificación, será ella misma quien deba presentar la documentación.

b) Declaración, en su caso, de las subvenciones, ingresos o recursos que la entidad solicitante hubiese solicitado u obtenido para la misma finalidad, procedente de cualquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales o internacionales, indicando las subvenciones que resulten incompatibles con las solicitadas. Y, en su caso, sobre ayudas «de minimis» recibidas por la empresa en los 3 años precedentes.

c) Presupuesto detallado del proyecto. No se presentarán gastos inferiores a 300 euros.

d) Memoria del proyecto, que contenga los objetivos del mismo y la descripción de las fases, actividades o tareas necesarias para alcanzarlos. La memoria contendrá un planing en el que consten las fechas de inicio y finalización. Se especificarán las personas que trabajarán en el proyecto y su perfil y experiencia, así como los recursos necesarios para ejecutarlo. Se definirán los resultados a obtener con la consecución de la actuación a financiar. En el caso de los proyectos en colaboración se explicará el papel de cada entidad en el mismo.

Además, para la valoración del anexo II, en el caso de que exista un diagnóstico previo, se adjuntará certificado firmado por la entidad que ha realizado dicho diagnóstico.

Se aportará toda la información necesaria para la valoración establecida en la base 5.ª del anexo correspondiente a cada una de las líneas de ayuda. La valoración se realizará con la información aportada en la solicitud.

e) Descripción de la entidad o entidades participantes. Se describirá brevemente la actividad que desarrolla la entidad y se incluirá el número de personas que trabajan en la misma, y los datos económicos correspondientes. En el caso de las entidades que presenten proyectos en el anexo II, se presentará el detalle de los proyectos realizados con/para empresas en el ámbito de actuación correspondiente.

Gainera, IV. Eranskinean proiektuak dituzten erakundeen kasuan, funtsezko aldagaiak adieraziko dira, bai haien bilakaera bai proiektzioa, zuzeneko lehiarekin alderatuta, hala nola: salmentak, inbertitutako kapitalaren gaineko itzulera, marjinak, kuxa-fluxua sortzeko gaitasuna eta lehia abantaila jasangarriak identifikatzea.

*7. Eskaerak ebazteko eta jakinarazteko epea.*

Dirulaguntza emateko ala ukatzeko ebazpena eta horren jakinarazpena egiteko gehieneko epea 6 hilabetekoa izango da, deialdia argitaratu eta biharamunetik aurrera hasita.

Erabakia eskatzaile bakoitzari jakinaraziko zaio, eta, horrez gain, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 17. artikuluari jarraiki.

Onuradunak 10 egun naturaleko epea izango du, jakinarazpenaren datatik aurrera, dirulaguntza onartzeko. Kontrakoa berriaz jakinarazten ez bada, tazituki onartutzat joko da.

Onuradun izateko baldintza administratibo eta teknikoak bete arren, aurrekontu-kreditua agortzeagatik diru-laguntzarik lortu ez duten erakundeak itxaron-zerrendan geratuko dira, emandako diru-laguntzaren bat uko egiteagatik bertan behera geratuko zen kasurako.

Además, en el caso de entidades con proyectos en el anexo IV, se indicarán variables clave, tanto su evolución como su proyección, en comparación con la competencia directa, tales como: ventas, retorno sobre el capital invertido, márgenes, generación de flujo de caja y la identificación de ventajas competitivas sostenibles.

*7. Plazo de resolución de las solicitudes y notificación.*

El plazo máximo para resolver y notificar la resolución de concesión o, en su caso, de denegación será de 6 meses, a contar a partir del día siguiente al de la publicación de la convocatoria.

Dicha resolución se notificará individualmente a cada solicitante, sin perjuicio de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa en los términos del artículo 17 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

La entidad beneficiaria dispondrá de un plazo de 10 días naturales a partir de la fecha de notificación para aceptar la subvención que se entenderá tácitamente aceptada si no existe comunicación expresa en contrario.

Las entidades que, aun reuniendo las condiciones administrativas y técnicas para adquirir la condición de beneficiarias, no hayan obtenido subvención por haberse agotado el crédito presupuestario, quedarán en lista de espera para el caso en que algunas de las subvenciones concedidas quedaran sin efecto por renuncia.



**Pertsonen Enpresa Programa:**

**Programa Pertsonen Enpresa:**

ESKAERA / SOLICITUD

Expediente  
Espedientea

Data

Fecha

Sarrera kodea

Código acceso

**ESKATZAILEAREN DATUAK / DATOS SOLICITANTE**

Eskatzailearen izena Nombre solicitante		Sexua Sexo	
IFZ NIF		Posta Kodea Código Postal	
Helbidea Dirección		Ataria/Solairua Portal/Piso	
Herria Localidad		Probintzia Provincia	
Helbide elektronikoa Correo electrónico		Telefonoak Teléfonos	
Kontua Cta Cte.		Faxa Fax	

**HARREMANETAKO PERTSONAREN DATUAK / DATOS DE LA PERSONA DE CONTACTO**

Pertsonaren izena Nombre de la persona		Sexua Sexo	
IFZ NIF		Posta Kodea Código Postal	
Helbidea Dirección		Probintzia Provincia	
Herria Localidad		Telefonoak Teléfonos	
Helbide elektronikoa Correo electrónico		Faxa Fax	



## Onuradun izatearen aitortpena / Declaración de condición de persona beneficiaria

Aitortzen dut ez nigan ez ordezkatzan dudan erakundean ez dagoela pertsona edo erakunde onuradun izatea eragozten duen inguruabarrik, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 12. Artikuluan aurreikusitakorik. Era berean, ez dago Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabe Bizitzeko Legean, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez testu bategina onetsitakoan, ezta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 9ko 2/2015 Foru Arauan aurreikusitako dirulaguntzen onuradun ezarritako debekukasuetako baten mende.

Declaro que no concurren en mí ni en la entidad a la que represento ninguna de las circunstancias que impiden

obtener la condición de persona o entidad beneficiaria, previstas en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 marzo de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa. Asimismo, tampoco se encuentra sometida a ninguno de los supuestos de prohibición para ser beneficiaria de subvenciones previstos en la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, en su texto refundido aprobado por Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, y en la Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

## Jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua betetzearen adierazpena Declaración del cumplimiento del código de conducta y marco de integridad institucional

Konpromisoa hartzen dut Gipuzkoako Foru Aldundiaren nahiz foru sektore publikoa osatzen duten gainerako entitateen dirulaguntza publikoei aplikatu beharreko jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua hasieratik bukaerara betetzeko, Diputatuen Kontseiluak 2018ko urriaren 2an hartutako erabakiaren arabera.

Me comprometo al cumplimiento en todos sus términos del código de conducta y marco de integridad institucional aplicable a ayudas y subvenciones de la Diputación Foral de Gipuzkoa y del resto de entidades que integran el sector público foral, aprobado por el Consejo de Gobierno Foral, en su reunión del 2 de octubre del 2018.

## Datu pertsonalen tratamendua / Tratamiento de datos personales

Datu pertsonalak erabiliko dira dirulaguntzak emateko, kudeatzeko eta haien jarraipena egiteko prozedurak izapidetzeko, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Araua eta Foru Gobernantza Publikoaren esparruko Gobernu Onari buruzko martxoaren 11ko 4/2019 Foru Araua betez. Deialdiaren interes publikoan eta bertan parte hartzeko eskabidean oinarritutako helburua. Tratamenduaren arduraduna deialdia kudeatzen duen zuzendaritza nagusia izango da. Nortasun, harreman eta kontu korronte datuak kontabilitate erregistroetan agertzen ez badira, nortasun, harreman eta kontu korronte datuak tratamendu batean sartuko dira Finantza eta Aurrekontu zuzendaritza nagusiaren ardurapean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskubideak gauzatea eta betebeharrak ordaintzea helburu duena.

Dirulaguntza emateko prozedura eta egin daitezkeen erreklamazioak izapidetzen diren bitartean gordeko dira datuak.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, NISAE elkarreragintasunerako nodoaren, sare korporatiboko aplikazioen edo beste sistema batzuen bidez, izapide hau ebazteko behar diren kontsultak eta egiaztapenak egingo ditu. Zehazki, zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eta kontu korrontearen titulartasuna betetzen direla egiaztatuko da. Era berean, eskaera honi aplikatzen zaion araudian egiaztatzea eska daitezkeen beste dokumentu batzuk ere egiaztatuko dira, bertan aurreikusitako baldintzetan.

Egiaztapen horren eta bere datu pertsonalen kontsultaren aurka egiten badu, eskatzaileak, agiriak aurkezteaz gain, arrazoituta justifikatu beharko du aurka dagoela. Eskubide hori balia dezake, bai eta datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko edo mugatzeko eskubidea ere, arduradunari zuzenduta, <https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/datuen-babesa/eskubideak-erabiltzea-en-horretarako-ekarritako-formularioen-bidez>.

Datu pertsonalen tratamenduari eta eskubideez baliatzeari dagokienez, helbide honetan ere jar zaitezke harremanetan: [dbo@gipuzkoa.eus](mailto:dbo@gipuzkoa.eus).

Los datos de carácter personal serán objeto de tratamiento con la finalidad de tramitar los procedimientos de concesión, gestión y seguimiento de las subvenciones, en cumplimiento de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa y de la Norma Foral 4/2019, de 11 de marzo, de Buen Gobierno en el marco de la gobernanza pública foral. Finalidad basada en el interés público de la convocatoria y en su solicitud de participación en ella. El responsable del tratamiento será la dirección general gestora de la convocatoria. En caso de que los datos de identidad, contacto y cuenta corriente no figuren en los registros contables, los datos de identidad, contacto y cuenta corriente se incorporarán a un tratamiento bajo la responsabilidad de la dirección general de Finanzas y Presupuestos cuya finalidad es la realización de derechos y pago de obligaciones de la Diputación Foral de Gipuzkoa.



Los datos serán conservados durante la tramitación del procedimiento de concesión de la subvención y de las reclamaciones que se puedan formular.

La Diputación Foral de Gipuzkoa, a través del nodo de interoperabilidad NISAE, de las aplicaciones de la red

corporativa u otros sistemas efectuará las consultas y verificaciones necesarias para la resolución del presente trámite. En concreto, se comprobará el cumplimiento de las obligaciones tributarias, obligaciones frente a la Seguridad Social, así como la titularidad de la cuenta corriente. Igualmente, se verificarán aquellos otros documentos cuya acreditación se pudiera exigir en la normativa aplicable a esta solicitud en los términos en ella previstos.

En caso de oponerse a esta verificación y a la consulta de sus datos personales, la persona solicitante además de aportar los documentos deberá justificar motivadamente su oposición. Puede ejercer este derecho, así como el de acceso, rectificación, supresión o limitación dirigiéndose a la persona responsable, a través de los formularios dispuestos en <https://egoitza.gipuzkoa.eus/es/proteccion-datos/ejercicio-derechos>.

Por lo que respecta a las cuestiones relativas al tratamiento de sus datos personales y al ejercicio de sus derechos puede también ponerse en contacto en esta dirección: [dbo@gipuzkoa.eus](mailto:dbo@gipuzkoa.eus).

## Komunikazio onartzea / Aceptación de comunicaciones

Onartzen dut eskaerari buruzko komunikazioetarako posta elektronikoa lehenestea. Nire gain hartzen dut eman dizuedan helbide elektronikoaren funtzionamendu egokia ziurtatzeko ardura.

Acepto que las comunicaciones sobre la solicitud se hagan preferentemente por correo electrónico. Me responsabilizo del correcto funcionamiento de la dirección aportada.

## PROIEKTUA / PROYECTO

<b>Izena</b>
<b>Denominación</b>
<b>Proiektuaren azalpena</b>
<b>Descripción proyecto</b>

### PROIEKTU HONEK ESKATUTAKO/JASOTAKO BESTELAKO LAGUNTZAK OTRAS AYUDAS SOLICITADAS/CONCEDIDAS POR EL MISMO PROYECTO

<input type="checkbox"/>	Ditu	<input type="checkbox"/>	Ez ditu
<input type="checkbox"/>	Tiene	<input type="checkbox"/>	No

Entitate eskatzaileak honako dirulaguntzak jaso edota eskatu ditu, gaur arte, proiektu hori bera laguntzeko.

Era berean, entitate horrek konpromisoa hartzen du herri erakunde publikoetan nahiz pribatuetan, gaurtik hasi eta proiektua amaitu bitartean, aurkezten duen dirulaguntza eskaera ororen berri emateko.

La entidad solicitante, hasta ahora, además de la presente solicitud de ayudas, ha presentado y/o recibido las siguientes ayudas por el mismo proyecto. La entidad deberá comunicar cuantas solicitudes de ayuda presente en cualquier organismo público o privado a partir de la fecha de hoy hasta finalizar el proyecto.

Erakundea Organismo	Deialdia Convocatoria	Onartze data Fecha de aprobación	Zenbatekoa Importe	Onartutako dirulaguntza Subvención concedida



<b>GUZTIRA/ TOTAL</b>		
-----------------------	--	--

**MINIMIS LAGUNTZEN AITORPENA DECLARACIÓN AYUDAS MINIMIS**

Hauek dira erakunde publikoek edo aurrekontu publikoen finantzazten diren erakunde pribatuek aurreko hiru urteetan emandako minimis dirulaguntzak:

Todas las ayudas de minimis de entidades públicas o entes privados financiados con cargo a presupuestos públicos concedidas en los tres años previos son las siguientes:

\_\_\_\_\_, 20\_\_ ko \_\_\_\_\_(a)ren \_\_\_\_\_(a)

En \_\_\_\_\_ a \_\_\_\_\_ de \_\_\_\_\_ de 20\_\_

Izptua. (Sinadura eta zigilua)

Fdo.: (Firma y sello)

Dokumentu hau sinatzen duenak bere gain hartzen du bertan adierazitakoaren erantzukizuna eta, orobat, dokumentuen zerrendako artxiboetan jasotako informazioarena (artxiboek CSV eta HASH kodeak dituzte).	La persona firmante se responsabiliza de lo declarado en el presente documento así como de la información contenida en los archivos relacionados en la lista de documentos identificados con sus respectivos CSV y códigos HASH
EKS kodea (Egiaztapeneko Kode Ziurra) da Gipuzkoako Foru Aldundiko Egoitza Elektronikoa zaindutako artxibo bat identifikatzen duena, eta haren egiazkotasuna web orrialde honetan kontsultatzea ahalbidetzen duena: <a href="https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/csv">https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/csv</a>	El CSV (Código Seguro de Verificación) es el código que identifica un archivo custodiado en la Sede Electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, y permite consultar su autenticidad en la siguiente dirección web: <a href="https://egoitza.gipuzkoa.eus/es/csv">https://egoitza.gipuzkoa.eus/es/csv</a>
HASH kodeak argi eta garbi identifikatzen du artxiboa, eta bermatzen du hura ez dela aldatu zaintzapean egon den bitartean.	El código HASH identifica inequívocamente el archivo, y garantiza que éste no ha sido alterado durante su custodia.